

Ordizian, 2010ko maiatzaren 24an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, EZ-OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea.	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK**

Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**GAI ZERRENDA:**

- 1. Agarre 21 HIEko Plan Partziala behin betiko onartzea. . . . . 4. orr.
- 2.- Oiangurengo kontzesioa berreskuratzeko akordioa. . . . . 4. orr.

**GORABEHERAK**

**GALDE-ESKEAK**

**ORDUTEGIA**

HASIERA ORDUA: 8,05 h

BUKAERA ORDUA: 8,35 h



Bilkurari hasiera eman baino lehen, Alkate jaunak osoko bilkuraren ez-ohiko deialdiaren izaera arrazoitu du. Bi puntu gehitu dira.

1. Agarre 21 HIE Plan Partziala behin betiko onartzea. Epe kontuak direla eta presazkoa da eta ezin zuen hurrengo ohiko bilkurara arte itxaron. Garrantzitsua da.

2.- Oiangurengo kontzesioa berreskuratzea ere garrantzitsua zen, Ikengu 05 S.L.-k kontzesioari uko egin baitio.

Ez ohiko bilkuraren deialdia egiteko arrazoiak azaldu ondoren, gaiak aztertzen hasi dira.

Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

### **1. Agarre 21 HIEko Plan Partziala behin betiko onartzea. .**

#### Proposamena

“AGARRE” Hirigintza Interbentzio Eremua 21eko Plan Partziala onartzeko espedientearen berri ematen da, Estudio Arizmendi Unzueta SLPk egindako agiriaren arabera.

2009ko azaroaren 26ko n°.1013 zenbakiko Alkatetza Dekretu bidez behin-behinean onartua, 2009ko azaroaren 12ko udal txosten teknikoko zehaztasunak konpontzeko baldintzarekin, Udaleko iragarkitaulan argitaratu zen jendaurreko iragarki bidez 20 eguneko epean, 2009ko abenduaren 14ko n°.236 zenbakiko GAO n eta 2009ko abenduaren 22ko egunkarian argitaratu zen eta inork ez zuen alegaziorik aurkeztu.

Era berean ADIFek (Administrador de Infraestructuras Ferroviarias), Uraren Euskal Agentziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Orokorrek egindako sektore-txostenak igorri dira.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 22.2c) artikulua arabera, udaleko osoko bilkurak onartu behar du hirigintza araubideak zehaztutako antolamendu planen eta tresnen udal tramitazioaren amaiera.

2010eko maiatzaren 13ko udal arkitektoaren txostena ikusita, eta maiatzaren 14ko Tokiko Gobernu Batzordearen aldeko irizpenarekin, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak honakoa onartzea proposatzen du:

#### AKORDIORAKO PROIEKTUA

**1. Agarreko Plan Partziala behin betiko onartzea. 2010eko maiatzaren 13an Udal arkitektuaren txostenean aipatutako aspektuak zuzentzeko baldintzarekin.**

**2.-Lurzoru eta Hirigintzako 2010eko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 96.3 artikulua arabera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurretik eskatutako zuzenketak jasotzen dituen Testu Bateratua aurkeztu beharko du.**

**3.-Behin betiko erabakia GAO n eta lurralde historikoan hedapen handiena duen egunkarian argitaratzea.**

**4.-Agiriaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea Plangintza Erregistroan jasotzeko eta**

**beste kopia bat Eusko Jaurlaritzako Hirigintza eta Ingurumen Zuzendaritzara bidali.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Absolutua.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Azaroaren 26an Alkatetza Dekretu bidez Agarreko Plan Partzialari hasierako onarpena eman zitziola azaldu du, eta Lurzoru Legearen arabera hasierako onarpenetik behin betiko onarpenera ezin dira 6 hilabete baino gehiago igaro. Epe hori maiatzaren 26an amaituko da.

#### Leunda jauna

Leunda jaunak galdetu dio gaiak presa bazuen zergatik ez zen aurreko osoko bilkuran onartu.

#### Alkate jauna

Epeak nahiko laburrak direla azaldu dio eta denboraz nahiko larri ibili direla, agiria egiteak zailtasunak ere bazituela, Udalak agiria egin dutenei zehaztasunak eman dizkiela, gainera jendaurrean informazioa zabaltzeko epe bat egon dela eta arloz arloko 3 txosten: Urak, errepideak eta ADIF.

Izandako denbora laburra zen.

#### Leunda jauna

Azaldu du beti bezala oposiziokoek ez dutela informaziorik jaso, arlo teknikoari dagokionez behintzat, gero haiek beraien ekarpenak egin ahal izateko.

#### Alkate jauna

Jakinarazi dio maiatzaren 21ean, ostirala, udal arkitektoak Gobernu batzordeko bileran azaldu zuela dokumentua, eta guztia oso prozesu azkarra izan dela.

#### Leunda jauna

Bere ustez ezkutuan ibili direla esan du berriro, eta ez du ulertzen zergatik ez diren mahai baten inguruan elkartu gaiaz eta dokumentuaz hitz egiteko.

#### Gonzalez jaunak

Gai hauetan oraindik berria dela dela esan du eta ez duela datu zehatzik gai honen inguruan, baina Leunda jaunak bezala uste du gai garrantzitsu hauetan oposiziokoek ere parte hartu beharko luketela.

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

IU-EB/Aralarko zinegotziek ez dute bozkatzen.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

## **2.- Oiangurengo kontzesioa berreskuratzea.**

### Proposamena

- Oianguren parkea eta barnekoa ustiatzeko Ikena 2001 SLri 2005eko otsailaren 28an egindako esleipena, parke honetarako enpresak aurkeztutako proiektuaren arabera.
- 2007ko abenduaren 10ean Ikengu 05 SL enpresari egindako kontratuaren lagapena, parkea ustiatzeko.
- 2008ko maiatzaren 20an Udalak, Ikengu05ek, Elkargik eta SGRk sinatutako hitzarmena, parkearen ustiapenean sor zitekeen gatazka konpondu ahal izateko.
- Ikengu 05 SLk aurreikusitako epeak ez betetzea eta aurreikusitako inbertsioak egiteko ondorengo luzapenak.
- 2010eko maiatzaren 7ko idatzia, Ikengu 05 SLk Udalari jakinarazten dio bertan kontzesioa uzten duela aurreikusitako inbertsio guztiak egin gabe.
- Parkea abandonatzean altzariak, larrea, Oianguren baserria etab. kaltetuta geratu dira, eta gainera parkea ez da erabiltzeko moduan geratu.

2010eko maiatzaren 19ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatzen da:

### AKORDIORAKO PROIEKTUA

**1.Ikengu 05 SLri 2005eko otsailean esleitutako kontzesioa berreskuratzea, egindako inbertsioengatik kalteordenainik eskatu gabe, 2008ko maiatzaren 30ean sinatutako Hitzarmenaren arabera.**

**2.-120.000 euroko abala osorik egikaritzea, 2008ko maiatzaren 30eko Hitzarmenaren B) ataleko Lehen estipulazioaren arabera.**

### **3.Udal zerbitzuei parkean izandako kalte eta galeren balorazioa egiteko eskatzea, adjudikazioa zuen enpresari erreklamazioa egin ahal izateko, Elkargiri egindako abala gainditzen den kasuan.**

Proposamena onartzeko gehiengoa:

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Idazkari andrea

Prozesua azaldu du laburki. Orain dela gutxi ia gauza jakina zen arren Ikengu 05 SL ez zela kontzesioa ustiatzen ari, aipatutako enpresak agiri bat aurkeztu du Udalean, eta bertan kontzesioa uzten duela adierazten du, eta agirian Merkataritza Erregistrora joango direla adierazi dute eta bertan "hartzekodunen lehiaketa boluntarioan" izena emango duela"

Udaleko langileak, gaia landu dutenak, lehiaketa honek izan ditzakeen ondorioen inguruko informazioa jasotzen aritu dira, eta 2008ko maiatzaren 30ean Udalak, Elkargi SGRk eta Ikengu 05 SLk sinatutako hitzarmenarekin sor daitezkeen ondorioak aztertu dituzte.

Zalantzak argitu ondoren ebazpena prestatzen hasi dira, osoko bilkuraren eskumena da eta osoko bilkurari dagokio.

#### Leunda jauna

Kontzesioa berreskuratzeko beharrenekin bat egiten du, baina parkea obrak hasi aurretik zegoen bezala utzi behar dela uste du eta 120.000 €ko abala kalteak konpontzeko erabili behar dela eta ondoren herritarrekin batera erabaki behar da Oiangurenekin zer egin.

Justiziako Auzitegi Nagusiaren erabakiaren inguruan udalak prentsa-oharra ateratzea diru publikoa botatzea dela iruditzen zaio, gainera prentsa-oharrak gezurra zioen kontzesioaren berreskurapenari dagokionean.

#### Gonzalez jaunak

Kontzesioa berreskuratzearen alde dago. Abala parkea hasieran bezala uzteko erabili beharko litzatekeela uste du eta Oiangurenerako parte-hartze prozesu bat dinamizatu beharko litzatekeela uste du.

#### Asenjo jauna

Kontzesioa berreskuratzearen alde dago, zutoinak kentzearen alde, eta parkean zer egin erabakitzeko parte-hartze prozesu baten alde dago.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena esandako zuzenketarekin bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2, IU-EB/Aralar)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.

